

## 2015/09/15(e)ko saioa

### **LEHENDAKARITZA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak kooperanteentzako hainbat diru laguntza ildoren deialdiak onartu ditu, guztira 500.000 eurokoak

### **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren erregimena eta funtzionamendua aldatzeko lege-proposamenak eztabaidatzearen aldekoa da

### **EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria Ik4 Alliance Research Elkarteko Batzorde Estrategikoan

Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaria Tecnalía Research Innovation Fundazioaren Patronatuan

Eusko jaurlaritzak garapen teknologikorako laguntzak indartu ditu, EMAITEIK programarako 50 milioi bideratuta

### **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

258.000 euro irakurketa eta liburutegien erabilera sustetzeko jardueretarako

776.314 euro lanbide heziketako ikastetxeen hornikuntzarako

### **INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.**

Gobernu Kontseiluak jakinarazi du nor izango diren Pasaiako eta Bilboko portuetako agintaritzetako ordezkari berriak

Gobernu Kontseiluak premiazkoztat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak Beizamaren Saneamendurako Ondasunak Okupatzea

Eusko Jaurlaritzak eta elgoibarko udalak elkarrekin lan egingo dute Euskotrenen geltokiko trenbidea hobetzeko eta ingurua berroneratzeko

Eusko Jaurlaritzak eta Deustuko Unibertsitateak lankidetzan jardungo dute itsaso eta portuetako gaietan trebatzen, ikertzen eta zabaltzen

## **LEHENDAKARITZA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzak kooperanteentzako hainbat diru laguntza ildoren deialdiak onartu ditu, guztira 500.000 eurokoak**

### **LABURPENA**

- **Gainera, lankidetzaren Ignacio Ellacuria saria deitu dute**

Gobernu-kontseiluak gaur onartu dituen hiru ebazpenen bidez kooperanteentzako hainbat laguntza-programa deituko dituzte, baita Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuria sariaren beste edizio bat ere.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak 200.000 euro bideratuko ditu pobrezia-aren aurka borrokatzen duten erakundeak eta/edo elkarteak instituzionalki indartzen lan egiten duten EAEko kooperatzaileentzat.

Diru-laguntzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko ditu eta GKEek eta erakundeek aurkezten dituzten eskabideen bidez emango dira. Diru-laguntza bakoitzaren urteko gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa izango da, urtebete eta bi urte arteko eperako.

Halaber, Nazio Batuen sistemaren parte diren nazioarteko erakundeetarako eta horiekin lotutako pertsona juridikoentzako diru-laguntzen deialdia onartu dute. Helburua erakunde horiek pobretutako herrialdeetan duten proiektuetan parte hartzen duten kooperanteak diruz laguntzea da.

Diru-laguntzen zenbatekoa 300.000 eurokoa da guztira, eta beste 240.000 euroekin luzatzeko aukera izango da. Diru-laguntza bakoitzaren zuzkidura 18.000 eurokoa da.

Azkenik, gobernu-kontseiluak Lehendakaritzak urtero ematen duen Ignacio Ellacuria sariaren beste deialdi bat onartu du. Sari horren bidez, herrien berdintasunaren eta justiziaren alde lan egiten duten Euskadiko eta kanpoko erakundeen, taldeen eta banakoen ekarpena errekonozitzen dute, baita pobrezia deuseztatzen laguntzen dutenena eta Euskadiko eta nazioarteko gizartea sentsibilizatzen laguntzen dutenena ere.

## **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritza Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren erregimena eta funtzionamendua aldatzeko lege-proposamenak eztabaidatzearen aldekoa da**

### **LABURPENA**

- **Gogorarazi du HKEE Eusko Legebiltzarraren mendeko erakundea dela, eta**

## **hari dagokiola aldaketak eztabaidatzea eta ebaztea.**

EH-Bildu eta Euskadiko Popularrak Legebiltzarreko taldeek Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko 1/1988 Legea aldatzeko lege-proposamen bana aurkeztu dute, eta haiek kontuan hartzearen alde agertu da gobernu-kontseilua. Proposamenek HKEEko kideak hautatzeko modua eta hautatzeko irizpideak aldatzea eskatzen dute.

Jaurlaritzak gogorarazi du Herri-Kontuen Euskal Epaitegia Eusko Legebiltzarraren mendeko erakundea dela eta hari dagokiola epaitegiaren erregimenari eta funtzionamenduari lotutakoak eztabaidatzea eta ebaztea.

Helburua da, besteak beste, epaitegiko kideak Eusko Legebiltzarreko bilkurak hautatzea, proportzionalki, talde bakoitzaren ordezkarien arabera. Gainera, proposatu dute aurreko bi urteetan zenbait funtzio bete dituzten pertsonak (besteak beste: kudeaketa-lanpostuak eta diru-sarrerak eta gastuak ikuskatzekoak Euskadiko sektore publikoan eta presidentetza- zein zuzendaritza-karguak eta Euskadiko sektore publikoko erakunde autonomoetan eta sozietateetan eta administrazio organoetan) edo diru-laguntza publikoak jaso dituztenek hautatuta gertatzeko aukerarik ez izatea.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak adierazi du Legebiltzarraren lana eta Euskadiko sektore publikoaren jarduera ekonomikoa eta finantzarioaren kontrolari eta zergapetzeari buruzko legedia errespetatzen dituela.

## **EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.**

### **Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria Ik4 Alliance Research Elkarteko Batzorde Estrategikoan**

Erabakia, IK4 Research Alliance elkartearen Batzorde Estrategikoko ordezkarien kargu-uztea eta izendapena egiteko.

#### **LABURPENA**

Gobernu-kontseiluak IK4 Alliance Research Elkarteko Batzorde Estrategikoko Eusko Jaurlaritzaren ordezkari kargutik kendu du Itziar Alkorta eta horren ordez Adolfo Morais Ezquerro izendatu du. Morais Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea da.

### **Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaria Tecnalía Research Innovation Fundazioaren Patronatuan**

Erabakia, Tecnalía Research Innovation Fundazioaren Patronatuko ordezkariak izendatzeko eta

kargu-uztekoa.

## **LABURPENA**

Gobernu-kontseiluak Tecalia Research Innovation Fundazioaren Patronatuko Eusko Jaurlaritzaren ordezkari kargutik Itziar Alkorta Idiakez eta Javier Zarraonandia Zuloaga kendu ditu eta horien ordez Adolfo Morais Ezquerro eta Aitor Patxi Oregi Baztarrika izendatu ditu. Morais eta Oregi Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Energia, Meategi eta Industria Administrazioeko zuzendaria dira, hurrenez hurren.

## **Eusko jaurlaritzak garapen teknologikorako laguntzak indartu ditu, EMAITEIK programarako 50 milioi bideratuta**

Erabakia, 5.000.000 euro baino gehiago gastatzeko baimena emateko dena. Helburua: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Teknologia-zentroen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroen (IKZ) jarduera ez-ekonomikoa laguntzeko Emaitek Plus laguntzen programa finantzatzea 2015eko ekitaldian.

## **LABURPENA**

- **EGSLk, horrela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileekin 2015. urtean hartutako konpromisoa bete du**
- **Laguntzak lortutako emaitzen arabera esleituko dira; horretarako, besteak beste, sortutako enpleguak eta enpresak neurtzen dituen aginte-taula bat hartuko da kontuan.**
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua bihar bilduko da Lehendakaritzan**

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak argi berdea eman dio EMAITEK programaren 50.142.850 euroko deialdiari. Hartara, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Zentro Teknologikoetako eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroetako jarduerari lagunduko zaio. Deialdi honekin, Eusko Jaurlaritzak 2015. urtean garapen teknologikorako aurrekontua % 7 igotzeko aurreikuspena bete du.

Laguntza hauen helburua da emaitza handienak dituen merkatuarekiko hurbilago dagoen ikerketa indartzea, Zentro Teknologikoetako eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroetako gaitasuna hobetzea, baina laguntzak, batik bat, espezializazio-eremuetan etorkizuneko ikuspegia duten ezagutza berriak jasotzera bideratuko dira.

## **Eta berria ZTBESrentzat**

Euskadi Europar Batasunean berrikuntza handia duten eskualdeen artean dago. Hala ere, Euskadiko azken urteetako bilakaera dela eta, I+Gren mix horretan aldaketak izan dira. Hala, azken urteetan ikerketa aplikatua igo bada ere, garapen teknologikoa jaitsi egin da eta, beraz, merkatuarekiko gertuen dagoen ikerketa ere jaitsi egin da.

2020rako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren xedea da eskaririk datozen beharrak eta eskaera zientifiko/teknologikoaren aurrerapenak sustatuko beharrak bateratzea.

Horretarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek berrantolatu ondoren, merkatuarekiko gertuko jarduera bat mantendu beharko dute. Horiek guztiek gero eta espezializatuagoak egon beharko dute Espezializazio Adimentsuaren RIS3 Estrategiarekiko eta ikerketako bikaintasuna mantendu beharko dute. Horrek esan nahi du eragile bakoitzak eskatzen zaizkion emaitzak lortu behar dituela, besteak beste, argitalpenak, patenteak eta oinarri teknologikoko enpresa berriak.

### **Aginte-taula baten arabera esleituko dira laguntzak**

EMAITEK PLUS programak 50,1 milioi euro banatuko ditu emaitzen ebaluazioaren arabera; Emaitzei Begira dagoen Zentro Teknologikoaren Eredu berri batean oinarrituta dago ebaluazio hori eta ZTESren berrantolamenduaren baitan zehaztu da. Zentro Teknologikoek eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroek diru-laguntzak jaso nahi badituzte, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide diren ziurtagiria izan beharko dute, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretu berriarekin bat.

Erakunde onuradun bakoitzaren ebaluazioa egingo da, Emaitzetara Begira dagoen Zentro Teknologikoaren Ereduaren arabera. Ebaluazio bakoitza eragileen tipologia bakoitzerako zehaztu da 2020rako lortu behar diren adierazleak, pisuak eta helburuak ezartzen dituen aginte-taula batean.

Ildo horri jarraiki, lortutako betetze-maila neurtuko da egindako jardueraren, espezializazio-mailaren zein bikaintasun-mailaren eta sareko gainerako eragileekin izandako harremanen-ereduaren mixari dagokionez. Horiek guztiak neurtzeko, hainbat adierazle izango dira kontuan, esaterako, patenteen kopurua, sortutako enpleguen kopurua, finantzazio pribatua lortu den edo nazioarteko lankidetzak egin diren, besteak beste.

### **Laguntzen esleipena**

Erakunde onuradun bakoitzak prozedura honen bidez jaso ahal izango duen gehieneko diru-laguntza hau izango da:

- **Zentro teknologikoen** kasuan, zentro hauen erreferentzia-ereduak ezartzen du finantzazioaren % 25 publikoa eta lehiarik gabea izango da.

Atal honetan fokalizazio anitza duten Zentro Teknologiko hauek hartuko dira kontuan: Tecnalia, Azterlan, Ceit, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Lortek, Tekniker, Vicomtech

- Ikerketa Kooperatiboko Zentroen kasuan erreferentzia-erduak ezartzen du finantzazioaren % 50 publikoa eta lehiarik gabe izango dela.

## Programa honetako Ikerketa Kooperatiboko Zentroak BioGune, BiomaGune, EnergiGune eta NanoGune dira.

Zentro bakoitzari dagokion zenbatekoa esleitzeko, zentro bakoitzak aginte-aula zenbatean betetzen duen hartuko da aintzat, baita zentroaren dimentsioa ere. Azken hori jakiteko deialdi honen aurreko ekitaldiko I+Gren Ustiapenerako Diru-Sarreraren bolumena hartuko da kontuan.

### **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, bihar**

Bihar, hilak 15, asteazkena, lehendakaria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko buru izango da, eta 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aurrerabidea aztertuko dute.

Kontseilu honetan foru-aldundiek ordezkari berriak izango dituzte. Gainera, 2014an onartu zuten 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP2020) jarduera-ildoen gauzatzeaz arituko dira.

Gogoan izan behar da, plan horrek biltzen duela, besteak beste, RIS3 espezializazio adimentsuko estrategia. Horren bidez, Euskadik lehentasunezko hiru arlotan lan egiteko konpromisoa du: manufaktura aurreratuan, energian eta biozientzien arloan, hain zuzen ere.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak arlo horietan abiarazitako proiektuen aurrerabidea aztertuko du, besteak beste.

Lehendakaria buru izango duen kontseilua, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, unibertsitateetako, Innobasqueko eta Ikerbasqueko ordezkariak ez ezik, Tecnalia fundaziokoak, IK4 Alliance Research Elkarteak, Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiakoak eta I+Gan inbertsio pribatuaren eragile diren Euskadiko lau enpresetakoak (Iberdrola, Idom, Cie Automotive eta CAF) ere badaude.

### **Dokumentuak**

[Aginte taula](#)

## **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

### **258.000 euro irakurketa eta liburutegien erabilera sustatzeko jardueretarako**

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, haur eta gazteen artean irakurketa sustatzeko jarduerak eta liburutegi publikoetako zerbitzuen erabilera bultzatzeko jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituen Agindua onartu du.

Deialdi honek 258.000 euroko diru kopurua du, eta Euskadiko udalak eta toki erakundeak aurkeztu ahal izango dira bertara, baldin eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuta dauden liburutegien gaineko

eskumenik baldin badute. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAA-n agertu eta hurrengo egunean hasita.

## **776.314 euro lanbide heziketako ikastetxeen hornikuntzarako**

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2015eko ekitaldirako diru-laguntzak deitzen dituen agindu bat, ikastetxe pribatuen eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten udal titularitateko ikastetxe publikoen hornikuntzarako.

Deialdi honek, 776.134 #ko zenbateko globala duenak, Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloko heziketa-zikloen hornikuntza gaurkotzea du helburu; gainera, produkzio-sektorearen gaurko bilakaeraren arabera garapen teknologiko aurreratuagoa duten industria-sektoreko heziketa-zikloen hornikuntza ere gaurkotu nahi du.

Itunpeko ikastetxeek eta udal titularitateko ikastetxe publikoek, 2015-2016ko ikasturtean Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloko erdi edo goi mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloen bat edo industria-sektoreko heziketa-zikloen bat itunduta edo hitzartuta baldin badute, eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak.

## **INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.**

### **Gobernu Kontseiluak jakinarazi du nor izango diren Pasaiaiko eta Bilboko portuetako agintaritzetako ordezkari berriak**

Dekretua, Pasaiaiko Portu Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide batzuk kendu eta beste batzuk izendatzeko dena.

Dekretua, Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoak dauzkan kide batzuk kargutik kendu eta beste batzuk izendatzeko dena.

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak onartu du Pasaiaiko Portuko Agintaritzako ordezkariak eguneratzea. Hala, Administrazio Kontseilutik kendu ditu Iñaki Errazkin, Amaia Agirregabiria eta Maite Peña, eta, haien tokian,

Marisol Garmendia, Izaskun Gómez eta Julen Mendoza sartuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Pasaiaiko eta Errenteriako Udaletako ordezkari berri diren aldetik.

Bilboko Portuko Agintaritzari dagokionez, berriz, Administrazio Kontseiluko kide izateari utzi diote Itziar Garamendik eta José Luis Sabasek, eta, haien tokian, Imanol Pradales eta Ricardo Barkala izango dira.

### **Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak Beizamaren Saneamendurako Ondasunak Okupatzea**

Dekretua, zeinaren bidez urgentziako deklaritzen baita Gipuzkoako Foru Aldundiak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasunak okupatzea: Beizamako saneamenduaren proiektu eguneratua (2015/07-SA-LI) burutzeko beharrezko ondasun eta eskubideak.

#### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko dituen ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, Beizamako saneamendurako proiekturako.

Premiaz okupatzeko gisa hartutako ondasunak eta eskubideak informazio publikoko aldiari ipini zituzten, eta alegazio bat aurkeztu zuten, administrazioaren espedientean jasota dagoenaren arabera. Zerbitzu teknikoek ondorioztatu dutenez, ez dago hirigintzaren arloko oztoporik espedientea izapidetzeko.

Horrekin amaituko da Beizamako saneamendua, eta Ibai-Eder urtegiaren isurpen desegokiak egitea saihestuko dute.

### **Eusko Jaurlaritzak eta elgoibarko udalak elkarrekin lan egingo dute Euskotrenen geltokiko trenbidea hobetzeko eta ingurua berroneratzeko**

Erabakia, EAEko administrazio orokorraren eta Elgoibarko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Elgoibarko udal-mugartean trenbide azpiegituraren trazadura hobetzeko eta Euskotren geltokiaren hiri-antolamendu gauzatzeko proiektua exekutatuzko obrak egiteko.

#### **LABURPENA**



Gobernu Kontseiluak onartu du lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Elgoibarko Udalaren artean, Elgoibarreko Euskotrenen geltokiko trenbidea hobetzeko eta inguru hori berroneratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek trenbide-sarerako helburutzat jotzen dute inguruak berroneratzea, ahal dela trenbideak barrera eta muga izan ez daitezen, batez ere hiri-esparru konplexuetan. Horretarako, ikuspegi sektoriala gaingaitzen dute, eta hirigintza-estrategien eta azpiegituren aurreikuspenaren arteko oreka topatuko da, guztia ere inplikaturako erakunde eta organismo guztien artean harremanak estutzeko kulturari sakonduta.

Ana Oregi sailburuak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak eta Elgoibarko Udalak ondoko dakite Elgoibarko trenbide inguruko hiri-antolamendua hobetu beharra dagoela, behar besteko kooperazioa eta asistentzia eskaintzeko, guztia ere geltokia hirian ondo integratuta, herrigunea eta San Roke auzoa lotzeko eta bien arteko trantsizio-gune izateko, irisgarritasuna hobetuta, bai oinezkoena, bai autoena.

Oregi sailburuaren esanetan, hainbat lan egingo dituzte: trenbidearen azpiegiturretan hainbat jarduketa, sestrareko eta gaineko esku-hartzeak, guztia ere etorkizunean trenbideak bikoizteko aukera utzita eta behar bezala kontuan izanda integrazio- eta irisgarritasun-irizpideak.

Honako hauek dira jarduketa honek biltzen dituen eraikuntza-proiektuak: Ubitarte Buru eta Ubitarte Gain bitarteko trazatuaren gaineko pasarela, 415.944,93 euroko kostuarekin; irisgarritasuna hobetzea baranda bat ipinita Juan Mugerza kalean, 64.457,91 euroko kostuarekin; irisgarritasuna hobetzea bi igogailu ipinita Trenbide kalearen eta Juan Mugerza kalearen artean, 485.629,43 euroko kostuarekin; irisgarritasuna hobetzea San Roke zubian 86.463,01 euroko zenbatekoarekin; eta Trenbide kaleko aparkalekua hobetzea, 156.721,23 euroko zenbatekoarekin. Guztira 1.209.216,51 euroko inbertsioa izango da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak partzialki finantzatuko du esandako hobekuntza-proiektuen zenbateko estimatua, gehienez ere 500.000 euroko inbertsioarekin.

## **Eusko Jaurlaritzak eta Deustuko Unibertsitateak lankidetzan jardungo dute itsaso eta portuetako gaietan trebatzen, ikertzen eta zabaltzen**

Erabakia: itsas eta portuetako gaietan prestakuntza, ikerketa eta zabalkunde jardueretarako, Deustuko Unibertsitateari zuzeneko diru-laguntza bat emateko dena.

### **LABURPENA**

Ana Oregik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, gaur goizean azaldu du Gobernu Kontseiluan lankidetzeta-hitzarmena sinatuko duela José María Guibert Deustuko Unibertsitateko errektorearekin, itsas garraioko eta itsaso eta portuetako enpresetako proiektuekin eta jarduerekin lotutako trebakuntza, ikerketa eta dibulgazioa sustatzeko, baita sektorearen lehiakortasuna sustatzeko ere. Bi

erakundeek Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra sustatuko dute elkarrekin.

2000ko irailean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak eta Deustuko Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu zuten Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako Master Aditua emateko. Haren bidez, bi erakundeen harremana artikulatu da, Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra emateko eta alor honetako bestelako proiektu interesgarri batzuk sustatzeko.

Hitzarmen honen bitartez, Deustuko Unibertsitateak trebakuntza, ikerketa, dibulgazioa eta sentsibilizazioa sustatuko du itsas garraioaren esparruan, bai eta itsas eta portu enpresen kudeaketari buruz ere. Era berean, Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra ere emango du, eta haren kudeaketa administratiboaz arduratuko da. Era berean, urtero Deustu Itsas Foroa antolatuko du, gaiaren inguruko berritasunak jorratzeko; bertan, sektorearekin lotutako esparru profesionala eta akademikoa uztartuko dira, eta etorkizunean garatu ahal izateko ideiak, proposamenak eta proiektuak sortuko dira bertan.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak urteko jardueren plana definitzen parte hartuko du Deustuko Unibertsitatearekin batera lankidetzan, itsas garraioarekin eta itsas eta portuetako enpresen kudeaketarekin lotutako trebakuntza- eta ikerketa-jarduerak diseinatzen eta garatzen. Halaber, jarduerok finantzatzen ere esku hartuko du: gehienez ere 75.000 euroko muga izango du aurrekontuetan, masterra ematen den ikasturte akademiko bakoitzeko.

Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra, hasiera batean, matrikulazioetatik lortutako diruarekin finantzatuko da, eta Deustuko Unibertsitateak hartuko luke bere gain.